Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Etikasi proiektua antolatu du beste urte batez

- *Programak bi modalitate izango ditu, Batetik, Polonia, bestetik Ipar irlanda eta Euskadi*
- *Bi modalitateetako parte hartzaileek bidaiatu baino lehen formakuntza saio bat egin beharko dute eta itxiera-saio bat bidaiaren ondoren.*

Bilbo, 2025eko otsailaren 10a. Etikasi giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza proiektu bat da. Giza duintasunean oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua dagoena, enpatiaren aldeko hautua eginez. Programa honen helburua etikari (etika ikasi) eta giza eskubideei buruz ikastea da, Poloniara, Ipar Irlandara eta Euskadira hezkuntza-bisitak eginez.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Giza Eskubideen eta Biktimen Atentzioaren Zuzendaritzarekin (Justizia eta Giza Eskubideen Sailera atxikituta) eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailera atxikituta) batera.

Programak bi modalitate ditu:

Lehenengo modalitatea ikastetxeei eskaintzen zaie, zehazki Batxilergo 1.mailako ikasgelei. 30 plaza daudenez, hautaketa prozesu bat egingo da. Ikastetxe irabazleak Krakoviara (Polonia) bidaiatuko du ekainaren 17tik 20ra. Bertan, Krakovia eta Auschwitz bisitatzeko aukera izango dute.

Bigarren modalitatea 18 eta 30 urte bitarteko Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko graduko ikasleei zuzenduta dago. Bi bidaia egingo dituzte: uztailaren 4tik 8ra Ipar Irlandara (Belfast eta Derry) eta urriaren 3tik 5era Pasaiara eta Errenterira. Modalitate honetan 20 plaza daude.

Epaimahai bat izendatuko da bi modalitateen hautaketa prozesua ebaluatuko duena

Programaren baldintzak, datak, eta informazio guztia EGK-ko webgunean eskuragarri dago.

Zalantzarik izanez gero, edota informazio gehiago jakin nahi baduzu, deitu edo bidali WhatsApp bat **688 737 097 / 943 42 97 67** telefonora (Mónica) edota idatzi **bakea@egk.eus** helbidera.

Komunikazio Teknikaria

688675932

El Consejo de la Juventud de Euskadi organiza un año más el proyecto Etikasi

- *El programa tendrá dos modalidades, Polonia e Irlanda del Norte y Euskadi.*
- *En ambas modalidades se realizará una formación previa a los viajes y el alumnado deberá realizar la sesión de cierre posterior al viaje.*

Bilbao. 10 de febrero de 2025. Etikasi es un proyecto educativo en derechos humanos, basado en el fundamento humano de la dignidad humana, y orientado al compromiso con la paz, la diversidad y la solidaridad, desde la opción por la empatía. La finalidad de este programa es aprender sobre ética *(etika ikasi)* y derechos humanos mediante visitas educativas a lugares europeos como Polonia, Irlanda del Norte y Euskadi, donde se han vivido violaciones de los derechos humanos.

El programa Etikasi ha sido impulsado con la colaboración del Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) junto con la Dirección de Derechos Humanos y Atención a Víctimas (adscrita a la Consejería de Justicia y Derechos Humanos del Gobierno Vasco) y la Dirección de Juventud y Emancipación (adscrita a la Consejería de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico).

El Programa tiene dos modalidades:

La primera modalidad está dirigida a centros educativos para las aulas de 1º de Bachillerato. Hay 30 plazas, por lo que se llevará a cabo un proceso de selección. Y el aula ganadora viajará a Cracovia (Polonia) del 17 al 20 de junio. Allí podrán visitar Cracovia y Auschwitz

La segunda modalidad está dirigida a personas jóvenes de entre 18 y 30 años que estudien un Grado Medio y Superior de Formación Profesional. Esta modalidad incluye 20 plazas y dos viajes: del 4 al 8 de julio a Irlanda del Norte (Belfast y Derry) y 3 al 5 de octubre a Euskadi (Pasaia y Errenteria).

Un tribunal evaluará el proceso de selección de ambas modalidades

Las condiciones para participar en el programa, las fechas y toda la información está disponible en la web de EGK.

En caso de tener alguna duda o necesitar más información, llama al **688 737 097 / 943 42 97 67** (Mónica) o escribe a **bakea@egk.eus**.

Técnica de Comunicación

688675932